



Gradu amaierako lanaren araudia (GRAL)

Haur Hezkuntzako Gradua
Lehen Hezkuntzako Gradua
Gizarte Hezkuntzako Gradua

(Azken bertsioa Fakultateko Batzarrak onartua **2024ko maiatzaren XXan**)

ÍNDICE

ZIOEN AZALPENA.....	2
1.artikulua. XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA.....	2
2.artikulua. GRADU AMAIERAKO LANARENIZAERA.....	3
3.artikulua . GRADU AMAIERAKO LAN MOTAK.....	4
4. artikulua.- GRADU AMAIERAKO LANA EGITEKO IRIZPIDE NAGUSIAK	5
5. artikulua.- MATRIKULA ETA DEIALDIAK.....	6
6. artikulua.- ZUZENDARIA, HURA ESLEITZEA ETA LANAREN GAIA AUKERATZEA.....	7
7.artikulua. ZUZENDARIAREN EGINKIZUNAK ETA BERE LANA AITORTZEA.....	8
8. artikulua. ESLEIPENA ETA LANAREN GAIA AUKERATZEA.....	9
9.artikulua. LANA KANPOKO ERAKUNDEEKIN LANKIDETZAN EGITEA	11
10.artikulua. ONDORIO ETIKOAK DITUZTEN GRALAK ETA UPV/EHU-KO ETIKA BATZORDEAREN JARRAIBIDEA BETETZEA.....	12
11. artikulua. MATRIKULA ETA DEFENTSA DEIALDIAK.....	13
12.artikulua. GRADU AMAIERAKO LANAREN AURKEZPENA ETA DEFENTSA.....	13
13. artikulua. EPAIMAHAI.....	14
14. artikulua. EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA.....	15
XEDAPEN INDARGABETZAILEA.....	17
AZKEN XEDAPENA. Indarrean sartzea.....	17

ZIOEN AZALPENA

822/2021 Errege Dekretuak, irailaren 28koak, Unibertsitateko irakaskuntzen antolaketa eta irakaskuntza horien kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituenak, 1393/2007 Errege Dekretua ordezkatu du. Bestek beste, honakoa xedatzen du: *El trabajo de fin de Grado, de carácter obligatorio y cuya superación es imprescindible para la obtención del título oficial, tiene como objetivo esencial la demostración por parte del o la estudiante del dominio y aplicación de los conocimientos, competencias y habilidades definitorios del título universitario oficial de Grado. Este trabajo de fin de Grado dispondrá de un mínimo de 6 créditos para todos los títulos, y un máximo de 24 créditos para los títulos de 240 créditos, de 30 créditos en los títulos de 300 créditos y de 36 créditos en los títulos de 360 créditos. Deberá desarrollarse en la fase final del plan de estudios, siguiendo los criterios que cada universidad o centro establezca. Asimismo, los trabajos de fin de Grado deberán ser defendidos en un acto público, siguiendo la normativa que a tal efecto establezca el centro o en su caso la universidad.*

Horrez gain, UPV/EHU gradu amaierako lana egin eta defendatzeari buruzko arautegia onartu zenetik aldatu beharreko zenbait gauza daudela ikusi da. Hori guztia kontuan hartuta, arautegi hau osatu da eta izaera orokorreko zenbait arau ezartzen dira UPV/EHU osoko gradu amaierako lanak (aurrerantzean GRAL) modu homogeneoan planifikatu eta ebaluatuko direla bermatuko duten irizpide eta prozedurak bateratzeko xedez titulazio bakoitzak dituen berezitasunak berezitasun, horiek ikastegi bakoitzeko batzarrak behar bezala jaso eta arautu eta argitaratu beharrekoak.

Aipatutakoaren babespean, honako Arautegia onartzen da.

1. artikulua. XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA

1. Arautegi honek Bilboko Hezkuntza Fakultatean ematen diren Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Gizarte Hezkuntzako graduetakoa Gradu Amaierako Lanak (GRALa) definitzeko, egiteko, defendatzeko, kalifikatzeko eta tramitatzeko irizpideak jasotzen ditu

2. Araututako jarduera profesioaletan aritzeko gaitasuna ematen duten tituluen kasuan, Gradu Amaierako Lana kasuan kasuko titulua egiaztatzeko baldintzak zehazten dituen aginduan xedatutakoaren arabera arautuko da; arautegi hau ere aplikatuko da, baina, betiere, agindu horren menpe egongo da.
3. Arautegi honen edukia, besteak beste, ebaluazio sistemaren, kredituen transferentzia eta onarpenaren eta ikasleen mugikortasunaren arloetan indarrean dauden UPV/EHUko gainerako arau eta prozedurekin osatuko da. Beste erakunde publiko zein pribatutan egiten diren Gradu Amaierako Lanek arautegi honetan eta kasuan kasuko lankidetzaz hitzarmenean zehaztutakoari jarraitu beharko diote
4. Arautegi hau Fakultateko Batzarrean onartuko da eta ikastegian bertan argitaratu beharko da.

2. artikulua. GRADU AMAIERAKO LANAREN IZAERA

1. Gradu Amaierako Lana egiteko, ikasleek, banaka, proiektu, memoria edo azterlan original bat egin behar dute, zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean, eta bertan Graduako ikasketa aldiari jasotako prestakuntza gaiak eta lortu dituzten ahalmen, gaitasun eta trebetasunak bildu eta garatuko dira. GRALak egile bakar bat izan behar du: ikasle bakoitzak, bakarka, egin behar du bere GRALa (planteamendua, garapena, idatzizko lana eta defentsa), eta ezin da beste inorekin elkarlanean egin. Lan autonomoa da, ikasle bakoitzak bere ekimenez egingo duena eta bere gain hartuta lana garatzeko erantzukizuna. Horretarako, zuzendari baten laguntza izango du, zeinak bideratuko duen lana egiteko eta defentsa prestatzeko prozesua.
2. GRALa titulazioan zehaztutako ezagutza, gaitasun eta trebetasunak aplikatzeari begira egingo da¹, baita datu garrantzitsuak bilatzeko, kudeatzeko, antolatze eta interpretatzeko trebatzeari begira ere, ikasleak gizarteari, zientziari, teknologiari edo etikari loturiko gai nabarmenei buruzko gogoeta egin eta iritzia eman dezan –normalean, bere ikasketa

¹ Ikusi graduari lotutako gaitasunak GRALaren Gidan

gaiei lotutakoei buruzkoa, gogoeta eta iritzi horiek kritikoak, logikoak eta sortzaileak izanda.

3. GRALa UPV/EHUren zeharkako gaitasunen katalogoan aipatzen diren zeharkako gaitasunak eskuratzera ere bideratuta egon beharko da, eta arreta berezia eskainiko dio diziplina bakoitzak jasangarritasunari eta balio demokratikoei eta bizikidetzari egin diezaiokeen ekarpenari.
4. Oro har, GRALa defendatu eta ebaluatzeko, egiaztatu egin behar da ikasleak ikasketa planeko gainerako gai guztiak gaindituta dituela eta, hortaz, titulua lortzeko behar diren kreditu guztiak dituela, GRALari dagozkionak izan ezik
5. Nolanahi ere, ezingo dira aitortu GRALari dagozkion kredituak.
6. GRALa Jabetza Intelektualari buruzko Legeak babestutako lana da. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titularra lana egin duen ikaslea izango da, ikaslearen beraren onarpenarekin eta indarreko legerian xedatutako baldintzen arabera, baldin eta bestelakorik zehaztu ez bada Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Gizarte Hezkuntzako Gradu Amaierako Lana esleitzeko dokumentuan.
7. Ikastegiko Batzarrak edo hark eskuordetutako batzordeak, GRALaren ikasturteko kudeaketa egutegia eta GRALaren Gida onartuko ditu, berau egin eta defendatzeko prozedura jasoko duena.

3. artikulua. GRADU AMAIERAKO LAN MOTAK

1. Gradu Amaierako Lanak, beti lan akademikoak izango direnak eta ikasketa planean jasotako gaitasunak eskuratzera bideratuak, modalitate hauek izan ditzakete: berrikuntza, gizartean edo hezkuntzan esku-hartzea, ikerketa, ekintzailea². Kontuan izan behar da lana gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea, berrikuntza didaktikoa edo ekintzailletza bada, lan mota horiek inplementatu egin daitezkeela edo ez, baina, hala ez bada, aditu bati edo gehiagori galdetu beharko zaiola tresnaren baliozkotasunari buruz eta

² Kontsultatu GRAL modalitateen proposamena/gidoia

egiten den esku-hartze/berrikuntza edo ekintzailtzaren proposamenari buruz.

2. Edozelan ere, idatzizko memoria edo proiektu batean gauzatuko da lana, eta erantsita izango ditu ikastegiak zehaztutako prozedurari eta arautegi honetako 10. artikuluari jarraikiz erantsi beharreko materialak.
3. Gradu Amaierako Lana lan akademikoa da baina, kasu batzuetan, ikerketa jarduerari ekiteko aukera ere izan daiteke. Lanak eskatzen badu jardueraren bat egitea gizakiekin, haien datuekin eta laginekin, animaliekin, edo agente biologikoekin edo genetikoki eraldatutako organismoekin, zuzendariak lanaren ondorio etikoak aztertuko ditu, 7.5 artikuluan adierazitako moduan.

4. artikulua. GRADU AMAIERAKO LANA EGITEKO IRIZPIDE NAGUSIAK

1. Gradu Amaierako Lana garatu eta idazteko, ikaslea ondoko irizpideak betetzen ahaleginduko da eta horretako, lanaren zuzendariaren laguntza izango du:
 - a. UPV/EHUren erakunde irudia eta EHU tipografia erabiltzea, erakundearen irudi baitira.
 - b. Hizketa inklusiboa erabiltzea, eta generoren ikuspegia txertatzea gizakiekin zerikusia daukaten lanetan.

Egindako beste jarduera akademiko batzuetatik (praktikak, prestakuntza duala, etab.) eratorritako informazioa bigarren mailan erabiltzen duten lanen kasuan, pertsonen buruzko informazioa erabiliko da bakarbakarrak akademikoki justifikatuta badago; eta, hala eginez gero, modu anonimoan erabiliko da, eta inplikaturako pertsonak ezin izango direla identifikatu bermatuko da.

2. Ikastegiekin zainduko dute Gradu Amaierako Lanak egiten direla UPV/EHUren³ hezkuntza ereduaren arabera. Ildo horretan, erakundeek (sektore publikoa, sektore pribatua, hirugarren sektorea eta GGKEak) sustatuko dute egitea benetako beharrei edo erronkei buruzko Gradu Amaierako Lanak, gizarte erronkei eta jasangarritasunaren dimentsio guztiei arreta berezia eskainiz. Era berean, 2030 EHUagendarekin lerrokatutako Gradu Amaierako Lanak egitea bultzatuko dute, eta lan esparru horien berri emango dute irakasleen eta titulazioetako ikasleen artean.

3. Unibertsitateko irakaskuntzen antolamendua eta haien kalitatea bermatzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 28ko 822/2021 Dekretuak ezarritako ikasketa planak diseinatzeko printzipio gidariak garatuz, Gradu Amaierako Lan guztietan jasoko da egindako lanari buruzko gogoeta bat, printzipio eta balio demokratikoei eta Garapen Jasangarrirako Helburuei (GJH) jarraituz egina. Gogoeta horrek aztertuko du GRALak balio horiekin eta GJHeK osatzen duten lan esparruarekin duen lotura, eta/edo horiekiko ikuspegi kritikoak planteatzen dituzke.

Gogoetak arreta berezia jarri ahal izango die honako hauei:

- Giza eskubideen eta oinarrizko eskubideen errespetua, baita balio demokratikoena ere.
- Genero berdintasunaren eta tratatu berdintasunaren errespetua, eta inor ez diskriminatzea, arrazoia edozein delarik ere: jaiotza, jatorri nazional edo etnikoa, erlijioa, sinesmen edo iritzia, adina, desgaitasuna, sexu orientazioa, genero identitatea edo genero adierazpena, sexu ezaugarriak, gaixotasuna, egoera sozioekonomikoa, edota beste edozein ezaugarri edo inguruabar pertsonal zein sozial.
- Irisgarritasun unibertsalaren eta pertsona guztientzako diseinuaren printzipioen errespetua.
- Jasangarritasuna eta aldaketa klimatikoa tratatzeko era.

Gogoetak 200 hitz izango ditu gutxienik, eta atal espezifikoa bat izango da lan idatzian. 822/2021 EDn aipatzen diren erreferentziazko arauekin batera, 2030 EHUagenda erabili ahal izango da gure unibertsitatearen erreferentziazko arau espezifikoa gisa.

Gainera, ikasleak lanaren erreferentziazko GJHak adieraziko ditu, unibertsitateak edo ikastegiak antolatuko dituen sistemen bidez.

5. artikulua. MATRIKULA ETA DEIALDIAK

1. Araudi honetako 2.4 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituen ikasleriak, GRALa matrikulatu ahal izango du, dagozkion kredituen arabera (12 kreditu) prezio publikoak ordainduz. Edozelan ere, GRALaren matrikula egin ahal izateko, ikasleak matrikulatuta izan beharko ditu ikasketa plana

bukatzeko geratzen zaizkion irakasgai guztiak, betiere, ikasketa planean bestelako baldintzarik ezarri ezean

2. Matrikulak eskubidea emango dio ikasleari ikasturte bakoitzean bi deialdi ofizialetara aurkezteko, Gobernu Kontseiluak onartutako egutegian zehaztutakoarekin bat. Lana kasuan kasuko ikasturteko deialdietan aurkeztu ez duen edo gainditu ez duen ikasleak matrikula egin beharko du berriro hurrengo ikasturtean.
3. Ikasleek GRALa zein hizkuntzatan egin eta defendatu nahi duten zehaztuko dute.
4. Deialdi jakin batean defendatzeko, ikasleak GRALaren defentsa eskatu beharko du GAURen, defentsako deialdia eta hizkuntza hautatuaz (lana egin den hizkuntza berbera). Ikasleak Karrera Amaierako Ezohiko Deialdian parte hartu ahal izango du, Graduako Irakaskuntzak Kudeatzeko Araudian aurreikusitakoaren arabera, eta bertan ezarritako baldintzak betetzen baditu.
5. GRALen kudeaketa-egutegian, GRALen defentsak noiz egingo diren jasoko da. Data horiek otsailean, ekainean eta irailean izango dira. Deialdi bakoitzean matrikula egiteko azken eguna ere jasoko da.
6. GRALaren ebaluazioaren akta Unibertsitateko Ebaluazio Arautegiari jarraikiz itxi beharko da, eta epaimahaiko idazkariaren ardura izango da akta behar bezala bete eta ikastegiak zehaztutako prozedurari jarraikiz administrazio zerbitzuei helaraztea. Bestalde, ikastegiko zuzendariaren edo dekanoren ardura da artikulua honetan jasotakoa bete egiten dela zaintzea

6. artikulua. ZUZENDARIA ETA HURA ESLEITZEA

1. Gradu Amaierako Lanaren zuzendaria izango da Graduan eskolak ematen dituen saileko irakasle bat edo Gradua irakasten den ikastegiari atxikitako bat.
2. Gradu Amaierako Lanak zuzendari bat baino gehiago izan ahalko ditu.
3. GRALaren zuzendarikide izan ahalko dira unibertsitatearekin lotura daukaten doktoreak eta doktorego aurreko kontratua daukatenak (baldin

eta kontratuak horretarako aukera ematen badu), baldin eta zuzendarikide bat badago Graduan eskolak ematen dituen sail batekoa, edo Gradua irakasten den ikastegiari atxikia.

4. Ikasleak, GRALa egiteko eta/edo zuzentzeko hitzarmen espezifiko baten barruan edo prestakuntza dualaren zein txandakako prestakuntzaren barruan, lan osoa edo zati bat UPV/EHU ez den erakunde batean egiten badu, zuzendaria unibertsitatetik kanpokoa izan ahalko da, baina kasu horretan 6.1 ataleko baldintzak betetzen dituen zuzendarikide bat egon beharko da.
5. Ikasleak Erasmus Programaren edo beste mugikortasun-programa batzuen babesean garatzen badu GRALa, unibertsitate horrek emandako xede-unibertsitateko zuzendarikide batek zuzendu ahal izango du, betiere araudi honen 6.1 ataleko baldintzak betetzen dituen zuzendari bat badu eta harrerako unibertsitatean GRALaren pisua 12 kreditu edo gehiagokoa baldin bada.
6. Zuzendaria arduratuko da ikasle bakoitzari lanaren ezaugarriak azaltzeaz, lanaren garapenean orientatzeaz eta GRALerako ezarritako helburuak betetzen direla zaintzeaz. Era berean, jarraipena egingo du eta horri buruzko txosten idatzi bat egingo du, irakasleek GAURen utziko dutena.
7. Zuzendariaren esleipenak ikasturte bateko balioa izango du. Epe hori amaitu ondoren, ikasleak eta irakasleak, ados jarrita, esleipenari eutsi ahal izango diote, edo, beren kabuz, uko egin ahal izango diote esleipenari.
8. GRALa esleitu ondoren, zuzendariak behin betiko edo iraupen luzeko baja hartzen badu, irakaslea atxikita dagoen sailak zuzendari berri bat izendatuko du 10 egun naturaleko epean, eta aldaketaren berri emango die inplikaturako ikasleei eta ikastetxeko zuzendaritzari.

7. artikulua. ZUZENDARIAREN EGINKIZUNAK ETA BERE LANA AITORTZEA

1. Irakasle zuzendariaren ardura izango da ikasleari lanaren ezaugarriak azaltzea, ikasleari lana egiteko orientazioa ematea eta zehaztutako helburuak betetzen

direla zaintzea, bai eta lanaren jarraipena egitea eta ikasleari lana defendatu aurretik emango zaion txostena idaztea ere.

2. Zuzendariaren eginkizuna da lanaren garapena ontzat ematea eta gainbegiratzea.
3. Lanaren zuzendari irudiak aitortzea izango du unibertsitatearen kasuan kasuko arautegian zehaztutakoari jarraikiz.
4. Zuzendariak lanaren eragin etikoa aztertuko du izan ditzakeen ondorioak zehazteko.
5. Zuzendariak laguntza emango dio ikasleari.
 - i. Lanaren egitura zehazteko.
 - ii. Iturri egokiak aukeratzeko eta erreferentziak zuzen egiteko.
 - iii. Gizakiekin, haien datuekin eta laginekin, animaliekin, edo agente biologikoekin edo genetikoki eraldatutako organismoekin ikerketa jardueraren bat egin behar den lanen kasuan, zuzendariak kasu hori identifikatzen eta akademikoki behar bezala justifikatzen lagunduko dio ikasleari. Halakoetan, aholkuak emateaz gain, azalduko dio nola bete behar diren lan akademikoetarako indarrean dauden jarraibide etiko espezifikoak (9. artikuluan aipatzen direnak).
 - iv. Egindako beste jarduera akademiko batzuetatik (praktikak, prestakuntza duala, etab.) eratorritako informazioa bigarren mailan erabiltzen duten lanen kasuan, zuzendariak kasu hori identifikatzen eta akademikoki behar bezala justifikatzen lagunduko dio ikasleari, eta azalduko dio zer egin behar duen informazioa anonimoa izan dadin eta bermatzeko inplikaturako pertsonak ezingo direla identifikatu.
 - v. Lana idazteko.
 - vi. Epaimahaiaren aurrean egin beharreko aurkezpena prestatzeko.

8. artikulua. ESLEIPENA ETA LANAREN GAIA AUKERATZEA

1. Sailek edota ikasleek gaiak proposatuko dizkiote Ikastegiko Batzarrari edo, hala badagokio, hark eskuordetutako batzordeari.

2. Ikasleek egindako proposamenak, behar bezala arrazoituta egon beharko dira ikuspegi teoriko-praktikotik eta Graduari lotutako gaitasunei egokituta³. Ikasleak zuzendari batekin adostu behar du proposamena eta ondoren GAUREn grabatuko du, ezarritako prozedura jarraituz.
3. Gai proposamenik aurkeztu ez duten ikasleek, edo aurkeztu arren gaia onartu ez zaien ikasleek, ikastegiak egingo duen eskaintza orokorretik hautatuko dute gaia eta horri lotuta dagoen tutorea.
4. Fakultateko Batzarrak edo hark eskuordetutako batzordeak ikastegiak duen eskaera asebetetzeko beharrezkoak diren gaien estimazioa egingo du, hizkuntza eta kopurua kontuan hartuta. Horren arabera eskatuko die sailei haien eskaintza osa dezaten.

Sail bakoitzari egingo zaion eskaera, hartara atxikita dagoen irakasle kopuruaren arabera egingo da. Hala ere, honako xehetasun hauek hartuko dira kontuan:

- 4 ordu baino gutxiagoko kontratua duten irakasleak ez dira zenbatuko.
 - Ikasturte bereko abenduaren 31 baino lehen erretiroa hartuko duten irakasleak ez dira zenbatuko.
 - 4 edo 6 orduko kontratuak plaza 1/2 bezala zenbatukodira.
 - Bi kanpusetan dozentzia duten irakasleak plaza 1/2 bezala zenbatuko dira.
 - Ordezkapenak ez dira zenbatuko baina bai irakasle titularrak.
5. Sailaren ardura izango da ziurtatzea bere eskaintzan proposatutako gaiak Graduan lortu beharreko gaitasunekin koherenteak direla
 6. Sailek eskainitako gaien zerrenda horretarako prestatuko den gune birtualean argitaratuko da, ikasleek gaien berri izan dezaten gaiaren autoesleipena egin baino lehen, gainontzeko matrikula egiteko momentu berean.

³ Ikusi *Ikasleen gai proposamenak nola egin* dokumentua

7. Ikasle batek gaia eta GRALaren zuzendaria esleitzeko aukera izan dezan, gutxienez graduko 150 kreditu gaudituta izan beharko ditu, eta ikasketa-plana amaitzeko eskatzen diren irakasgai guztietan matrikulatuta egon beharko du, GRALen izan ezik.
8. Ikastetxeak eskainitako GRALaren gaia eta zuzendaria aukeratzeko lehentasun-hurrenkera ezartzeko irizpidea matrikula egiteko aipatzen den berbera izango da.⁴
9. GRALaren eta zuzendariaren esleipenak ikasturte bateko balioa izango du. Epe hori igarotakoan, bi alderdiak ados jarrita, berritu ahal izango da.
10. Ikastegi Batzordeak ikasturte bakoitzaren hasieran ezarriko du lan eta tutore berriak esleitzeko epemuga.

9. artikulua. LANA KANPOKO ERAKUNDEEKIN LANKIDETZAN EGITEA

1. GRALa unibertsitatetik kanpoko erakunde batekin egin ahal izango da. Horretarako ezinbestekoa izango da lankidetzaren hitzarmena sinatzea.
2. Lankidetzaren hitzarmen horiek arautegi honetan zehaztutakoari jarraikiz egingo dira, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren Funtzionamendurako Arautegiko 25.f) artikulua babesean (2009ko maiatzaren 26ko EHAA).

Lankidetzaren hitzarmena errazteko, Graduko Batzordeak hitzarmen ereduak onartuko ditu; arautegi honi erantsiko zaizkio eta UPV/EHUk horiek erabiltzea sustatuko du. Hitzarmena bat badator onartutako ereduaren batekin, ikastegiak zuzenean sinatu ahal izango du. Ereduarekin bat ez badator, ikastegiak gainbegiratu egingo du edukia bat datorrela arautegi honekin, eta, ondoren, sinatu egingo du.

Hitzarmena sinatuko dute erakunde lankideko kide batek eta ikastegiko zuzendaritza taldeko kide batek (batak zein besteak hitzarmena sinatzeko gaitasun nahiko izan behar du).

3. GRALa beste erakunde batean eginez gero, alde aurretik zehaztu egin beharko da konfidentzialtasuna dela-eta mugarik dagoen emaitzaren bat aurkezteko edo

⁴ Ikus graduko eta lehen eta bigarren zikloko irakaskuntzarako kudeaketa-araudia, 27

argitaratzeko edo lana jendaurrean defendatzeko. GRALa egitean erabiliko bada, modu justifikatuan eta arrazoi akademikoengatik, erakundearen sortu den pertsonen buruzko informazioa, modu anonimoan erabiliko da eta bermatuta inplikaturako pertsonak ezingo direla identifikatu; eta lan idatzian azalduko da zeintzuk neurri hartu diren hori ziurtatzeko.

10.artikulua. ONDORIO ETIKOAK DITUZTEN GRALAK ETA UPV/EHU-KO ETIKA BATZORDEAREN JARRAIBIDEA BETETZEA

1. Gizakiekin, haien datuekin eta laginekin, animaliekin, edo agente biologikoekin edo genetikoki eraldaturako organismoekin ikerketa jardueraren bat egitea eskatzen duten lanen kasuan, tutoreak, lana mota horretakoa dela behin identifikatuta, ikasleari lagunduko dio baloratzeko ondorio etikoen garrantzia eta azalduko dio nola bete lan akademikoetarako indarrean dauden jarraibide espezifikoak, UPV/EHUren ikerketa eta irakaskuntzaren arloko Etika Batzordearen webgunean argitaratuak.
2. Aipaturako kasu horietan, UPV/EHUren ikerketa eta irakaskuntzaren arloko Etika Batzordearen jarraibideetan aipatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu ikasleak, GRALa defendatzeko gainerako dokumentuekin batera. Alderdi hori arreta bereziz gainbegiratu beharko du tutoreak. Etika Zerbitzuak, bere aldetik, jarraibideak eta prozedurak etengabe hobetzen direla zainduko du, estandar etikoak betetzea errazteko eta betetze horren justifikazioa ahalik eta arinen egiteko.
3. Egindako beste jarduera akademiko batzuetatik (praktikak, prestakuntza duala, etab.) eratorritako informazioa bigarren mailan erabiltzen duten lanen kasuan, 8. artikuluan xedaturakoa bete beharko da informazioa anonimoa izan dadin eta inplikaturako pertsonak ezingo direla identifikatuko bermatzeko, baina ez da aurkeztu beharko dokumentu gehiago. Hala ere, GRALean zehazki aipatu beharko da informazio iturria, bai eta zer egin den anonimotasuna bermatzeko ere. Alde horiek arreta bereziz gainbegiratu beharko ditu tutoreak.
4. Ondorio etikoak dituzten lanen defentsan, epaimahaiak ebaluatuko du, baita ere, bete diren lan akademikoetarako indarrean dauden jarraibide etiko espezifikoak. Izan ere, ondorio etikoak ezagutzea eta jarraibideak betetzea zeharkako

gaitasunak dira, ikerketa jarduerari ekiteko aukera ematen duten lanetan frogatu beharrekoak.

5. Ikasle guztiek nahitaez sartu beharko dute GRALren eranskin gisa Fakultateko Batzordeak 2023ko azaroaren 29an onartutako profesionaltasun etikoaren hitzarmena.

11. artikulua. MATRIKULA ETA DEFENTSA DEIALDIAK

1. Arautegi honetako 2.4 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten ikasleek esleitutako kredituen arabera dagozkien prezio publikoak ordainduta matrikulatuko dute GRAL irakasgaia (12 kreditu). GRALren matrikula ikastetxeak urteko kudeaketa-egutegian ezarritako epeetan eta GRALren gidan ezarritako prozeduraren arabera egingo da.
2. Matrikulak eskubidea emango dio ikasleari ikasturte bakoitzean bi deialdi ofizialetara aurkezteko, Gobernu Kontseiluak onartutako egutegian zehaztutakoarekin bat. Lana kasuan kasuko ikasturteko deialdietan aurkeztu ez duen edo gainditu ez duen ikasleak matrikula egin beharko du berriro hurrengo ikasturtean.
3. Deialdi jakin batean GRAL defendatzeko, ikasleek defentsa eskatu beharko dute GAURen, eta deialdia zein hizkuntzatan defendatuko duten hautatuko dute (lana egin duten hizkuntza bera).
4. GRALaren kudeaketa-egutegian, GRALen defentsak noiz egingo diren jasoko da. Data horiek otsailean, ekainean eta irailean izango dira. Deialdi bakoitzean matrikula egiteko azken eguna ere jasoko da.

12. artikulua. GRADU AMAIERAKO LANAREN AURKEZPENA ETA DEFENTSA

1. Ikasleek lanaren kopia digital bat utziko dute ADDI artxibo digitalean, pdf formatuan. Hala ere, lana beste bide ofizialen bidez aurkeztea eska dakioke ikasleari.
2. Epaimahaikideek ADDIren bidez eskuratuko dituzte ebaluatu beharreko lanak.

3. Ikasleak aurrez aurre defendatu beharko du GRALa, eta defentsa saioa publikoa izango da. Ikasleak GRALa mugikortasun programa baten barnean egingo balu, lanaren defentsa harrera unibertsitatean egin ahal izango du, beti ere, harrera unibertsitatea eta UPV/EHUren artean eman beharreko baldintzei buruzko akordioa balego.
4. Tituluaren egiaztapeneko memorian ezarritakoaren arabera, Graduan eskolak emateko erabili diren hizkuntzetako edozeinetan egin, aurkeztu eta defendatu ahal izango da lana, hizkuntza horietan jarduteko epaimahaiak osatzeko gaitasuna baldin badago. Nolanahi ere, GRALa Autonomía Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egin eta defendatzeko eskubidea bermatuko da.
5. Ikasle bakoitzak gehienez ere 15 minutu izango ditu GRALaren defentsa egiteko, eta tarte horretan bere lanaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak azaldu beharko ditu. Ondoren, epaimahaiko kideek egin diezazkioketen galdera, argibide, ohar eta iradokizunei erantzun beharko die, gehienez ere 25 minutuz.
6. GRALak ADDI artxibo digitalean gordeko dira ikasleak lana gainditu eta hurrengo ikasturtearen amaierara arte. Epe hori amaitzean, salbu eta errekurtsoren bat ebazteke baldin badago, suntsitu egin ahal izango dira.
7. Behin defentsa eskatuta, GRALa ez bada defendatzen, "Ez aurkeztua" kalifikazioa jarriko da.

13. artikulua. EPAIMAHAIIA

1. Epaimahaiak Ikastegiko Batzarrak, edo, hala dagokionean, eskuordetutako batzordeak, ezarritako moduan eratuko dira, matrikulatutako ikasle kopurua eta egin diren Gradu Amaierako Lanen gaiak kontuan hartuta. Edonola ere, bermatu egin beharko da epaimahaiak egongo direla bi hizkuntza ofizialetarako, eta beste hizkuntzaren batean eskainiz gero, hizkuntza horretarako ere
2. Epaimahaiak hiru kide izango ditu eta gutxienez, ordezko bat. Guztiak izango dira ikastegira atxikitutako irakasleak.

3. Ikastetxeari atxikitako edozein IRI izendatu ahal izango da epaimahai ebaluatzaileko kide.
4. Epaimahai bakoitzean mahaiburu bat, kide bat, idazkari bat eta ordezkari bat egongo dira, irakaskuntza-kategoriaren eta antzinatasunaren arabera ordenatuta. Antzinatasun gehien duenak lehendakari gisa jardungo dute jardun guztietan.
5. GRALaren zuzendaria ezin izango da hura ebaluatzen duen epaimahaiko kide izan.
6. Epaimahaien izendapena Zentroko Batzordeak egingo du, deialdi bakoitzaren defentsa-eguna baino behar besteko aurrerapenaz.
7. Epaimahaien osaera izendapenaren biharamunean argitaratuko da.

14. artikulua. EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA

1. Ikaslearen aurkezpena bukatutakoan eta zuzendariaren txostena ikusitakoan, epaimahaiak ikasleari eman beharreko kalifikazioa eztabaidatuko du, Gradu Amaierako Lanaren Gidaliburuan argitaratutako irizpideen arabera eta tituluaren egiaztapeneko memorian ezarritakoari jarraikiz.
2. Suspentso jarritz gero lanari, epaimahaiak txostena helaraziko dio ikasleari, lana hobetu eta berriz ebaluatzerako aurkezteko aholkuak adierazita. Zuzendariari ere bidaliko zaio txostenaren kopia bat.
3. Azken kalifikazioan, epaimahaiak kontuan hartu beharko du tutoreak proposatutako nota, % 50eko pisuarekin (horren % 60 idatzizko lanari dagokio, eta % 40 prozesuari), eta fakultate-batzarrak onartutako errubriken arabera ebaluatuko da. Azken kalifikazioari dagokion beste % 50a epaimahaiak ebaluatuko du (horren % 50 idatzizko lanari dagokio eta % 50 ahozko defentsari) eta kasu honetan ere fakultate-batzarrak onartutako errubriken arabera ebaluatuko da.
4. Kalifikazioa epaimahaiak zehaztuko du, 0tik 10era bitarteko zenbakizko eskalan emango da, hamartar bakarrarekin, eta kalifikazio hori letraz ere adieraziko da:

Aurkezteke(AG)

0 - 4,9: Suspentso (S)

5,0 - 6,9: Nahiko (N)

7,0 - 8,9: Oso ongi (OO).

9,0 - 10: Bikain (B)

a) Deialdi batean lana aurkezteko eskubideari uko eginez gero, Aurkezteke adierazi beharko da..

b) Hizkuntza-zuzentasuna eta printzipio etikoak betetzea *sine qua non* baldintzak dira Gradu Amaierako Lan bat aurkeztu ahal izateko. Hizkuntza zuzentzeko itemetan balioespen NAHIKOA ez duten lanek SUSPENTSO= 0 ebaluazioa izango dute zuzenean GRALean gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztelako. Era berean, Profesionaltasun Etikoko Hitzarmena betetzen ez duten ikasleek ere SUSPENTSO= 0 kalifikazioa izango dute.

c) Epaimahai ebaluatzaile bakoitzari dagokio Ikasketen Antolamendurako Batzordeari "Ohorezko matrikula" aipamena lortzeko aukera izango duten ikasleen zerrenda proposatzea, betiere 9,0 edo hortik gorako kalifikazioa badute. Proposamenak ikusita, Bilboko Hezkuntza Fakultateko Ikasketen Antolamendurako Batzordeari dagokio "Ohorezko matrikula" aipamena ematea defentsa-aldi eta titulazio bakoitzean matrikulatutako ikasleen %5ari, gehienez. Epaimahaiko idazkariak itxiko du "Ohorezko matrikula" aipatzeko proposatu diren ikasleen akta, Ikasketen Antolamendurako Batzordearen erabakiaren berri izan ondoren.

5. Gradu Amaierako Lanen azken kalifikazioen berrikuspenak edo erreklamazioak unibertsitateko ebaluazio araei jarraikiz egingo dira, baina ebaluazioa epaimahaiak egiten duenez, ebaluazioaren berrikuspena lehenengo instantzian epaimahaiak berak egingo du, eta bigarren instantzian Ikastegiko Erreklamazio Batzordeak ebatziko du; ebazpen horren kontra gorako errekurtsioa aurkeztu

ahal izango zaio unibertsitateko Errekurtsoen, Irizpenen eta Sinplifikazioaren arloko Batzorde Administratiboari.


6. GRALaren ebaluazioaren akta Unibertsitateko Ebaluazio Arautegiari jarraiki itxi beharko da, eta epaimahaiko idazkariaren ardura izango da akta behar bezala bete eta ikastegiak zehaztutako prozedurari jarraiki administrazio zerbitzuei helaraztea. Horrez gain, ikastegiko zuzendariari dagokio artikulua honetan ezarritakoa betetzen dela bermatzea.
7. Artikulu honen aurreko puntuetan zehaztutako gainontzeko egoera guztietarako Gradu Amaierako Lanaren Irakaskuntza Gidaren Ebaluazioan adierazitakoa beteko da.
8. Edozelan ere, GRALaren kalifikazioa ikaslearen espedientean jasota ageri beharko da urriaren 31 baino lehen.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da Bilboko Hezkuntza Fakultateak Gradu Amaierako Lana egin eta defendatzeari buruzko aurreko arautegia, Fakultate Batzordeak 2019ko abenduaren 18an onartutakoa.

AZKEN XEDAPENA. Indarrean sartzea

Araudi hau Fakultateko Batzordeak onartu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.



Normativa del Trabajo de Fin de Grado (TFG)

Grado en Educación Infantil
Grado en Educación Primaria
Grado en Educación Social

(Última versión aprobada por la Junta de la Facultad **el XX de mayo de 2024**)

ÍNDICE	
EXPOSICIÓN DE MOTIVOS.....	2
Artículo 1. OBJETO Y ÁMBITO DE APLICACIÓN	3
Artículo 2. NATURALEZA DEL TRABAJO FIN DE GRADO.....	4
Artículo 3. MODALIDADES DE TRABAJOS FIN DE GRADO.	5
Artículo 4. DIRECTRICES GENERALES PARA LA ELABORACIÓN DE LOS TRABAJOS FIN DE GRADO.....	6
Artículo 5. MATRÍCULA Y CONVOCATORIAS DE DEFENSA	7
Artículo 6. DE LA PERSONA DIRECTORA, SU ASIGNACIÓN Y ELECCIÓN DEL TEMA DEL TRABAJO.....	8
Artículo 7. FUNCIONES DE LA PERSONA DIRECTORA Y RECONOCIMIENTO DE SU LABOR ...	9
Artículo 8. ELECCIÓN Y ASIGNACIÓN DEL TEMA DEL TRABAJO	10
Artículo 9. REALIZACIÓN DEL TRABAJO EN COLABORACIÓN CON ENTIDAD EXTERNA	12
Artículo 10. TFGS CON IMPLICACIONES ÉTICAS Y CUMPLIMIENTO DE LAS DIRECTRICES DEL COMITÉ DE ÉTICA DE LA UPV/EHU.....	13
Artículo 11. MATRÍCULA Y CONVOCATORIAS DE DEFENSA.....	14
Artículo 12. PRESENTACIÓN Y DEFENSA DEL TRABAJO FIN DE GRADO.....	14
Artículo 13. TRIBUNAL DE EVALUACIÓN	15
Artículo 14. EVALUACIÓN Y CALIFICACIÓN	16
Disposición derogatoria	18
Disposición final. ENTRADA EN VIGOR.....	18

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El Real Decreto 822/2021, de 28 de septiembre, por el que se establece la organización de las enseñanzas universitarias y del procedimiento de aseguramiento de su calidad, ha sustituido al anterior Real Decreto 1393/2007. Entre otras cuestiones dispone que "El trabajo de fin de Grado, de carácter obligatorio y cuya superación es imprescindible para la obtención del título oficial, tiene como objetivo esencial la demostración por parte del o la estudiante del dominio y aplicación de los conocimientos, competencias y habilidades definitorios del título universitario oficial de Grado. Este trabajo de fin de Grado dispondrá de un mínimo de 6 créditos para todos los títulos, y un máximo de 24 créditos para los títulos de 240 créditos, de 30 créditos en los títulos de 300 créditos y de 36 créditos en los títulos de 360 créditos. Deberá desarrollarse en la fase final del plan de estudios, siguiendo los criterios que cada universidad o centro establezca. Asimismo, los trabajos de fin de Grado deberán ser defendidos en un acto público, siguiendo la normativa que a tal efecto establezca el centro o en su caso la universidad."

En este contexto, desde que se publicase la normativa sobre la elaboración y defensa del trabajo fin de grado en la UPV/EHU se han detectado ciertos aspectos que conviene modificar. Por todo ello se ha elaborado el presente reglamento, que establece una serie de normas de carácter general con la finalidad de unificar los criterios y procedimientos que garanticen una actuación homogénea en la planificación y evaluación de los Trabajos Fin de Grado (en adelante TFG) de toda la UPV/EHU, sin perjuicio de las posibles particularidades de cada titulación que necesariamente deberán ser atendidas y convenientemente reguladas y publicadas por las correspondientes Juntas de Centro.

En virtud de lo anterior se aprueba la presente Normativa.

Artículo 1. OBJETO Y ÁMBITO DE APLICACIÓN

1. Esta Normativa contiene las directrices relativas a la definición, realización, defensa, calificación y tramitación administrativa de los TFG que se establezcan en los Grados en Educación Primaria, Educación Infantil y Educación Social que se imparten en la Facultad de Educación de Bilbao.
2. El TFG en los títulos que habiliten para el ejercicio de actividades profesionales reguladas, se registrará por lo dispuesto en la Orden que establezca los requisitos para

